

## Gabino Etxeberria eta Joxan Pagolak Tiloseta bete jenderen omenaldi beroa jaso zuten

■ Etxeberriak eta Pagolak presoek dituzten baldintza gogorak salatu zituzten ■ Gainerako preso eta edo errefuxiatuaz gogoratzeaz gain, senideek eta lagunek emandako babesa eskertu zuten.

JOXAN Pagola eta Gabino Etxeberriak ongietorri omenaldia jaso zuten larunbatean. Hitza hartzearekin batera, biek salatu zuten presoak pertsona bizi ez litekeen baldintzetan daudela: "sakabaketa, kartzelan bakarrik eta zeldatik atera ere egin gabe edukitzea, ikasketak egiten galeraztea, Frantzia zigorra bete eta Espainian berriz bete beharra" eta abar. Bai Etxeberriak eta bai Pagolak senide, lagun eta ingurukoak eskertu zituzten kartzelan zeldela emandako laguntzagatik. Biek nabarmendu zuten senideek horretarako egin behar izan dituzten bide luzeak eta pasa behar izan dituzte tranzeak. Era berean, biek gogoan izan zituzten kartzelan gelditu diren presoak.

Ongietorri ekitaldian Euskal Preso Politikoen Kolektiboak ere hartu zuen parte. Euskal Herri osoko hamabosten bat preso beren babesa eman zien hernaniarrei Tilosetako kioskoan. Bozeramailearen esanetan, euskal gatazkak konponbide demokratikoa iza-



Etxeberria eta Pagolak haritz landare bana jaso zuten, Lujanbio eta Minerrek eskutik.

tekotan, presoek parte hartze zuzena behar dute prozesuan eta amnistia osoa eskatu zuen.

Ekitaldiak herriko preso eta errefuxiatuak gogoan izan zituen eta haien senideek ere parte hartu zuten larunbateko ekitaldian.

**Herriko taldeen opariak**  
Herriko zenbait taldek beren ongi etorri berezia egin zieten Gabino Etxeberria eta Joxan Pagolari eta bakoitzak oroigarri bana eman zien biei. Une hunkigarrietako bat izan zen Txemari Lujanbiok eta

Kepa Minerrek haritz landare bana eman ziotenekoa.

Ekitaldi ondorenean, manifestazioa egin zen. Bestalde, antolatzaileek iragarri zuten Hildako Gudariei Omenaldia azaroaren 8an dela, 20:00etan kiroldegian. □

## Monteseke etxeen zozketan sartzeko kriterioak Plenora

ASTEARTEAN Pleno berezia egingo da Udaletxean eta gai ordenean puntu bakarra izango du: montesen egiten ari dituzten protekzio etxeak hartzeko irizpideak erabakitzea. Plenoa, arratsaldeko 17:00etan egingo da.

### Gobernu Batzordea

Bestalde asteartean gobernu batzordea ere egingo da. Bost puntu ditu mahi gainean eta denak partikularrek Udalarri egindako erreklamazioak dira. □

### BERTSOLARI TXAPELKETA

## Eizagirre zuzenean semifinalera eta Agirre bigarren atzo

GIPUZKOAKO Bertsolari txapelketako bi final laurden jokatu dira. Estitxu Eizagirre aurrea gelditu zen Oñatin saio ederra eginda, eta zuzenean pasako da semifinalera. Eizagirrek 399 puntu atera zituen, Nerea Elustondo bezelako faboritoak atzean utzita.

Unai Agirrek atzo kantatu zuen Ordizian, eta ez zuen bere mailarik eman. Agirre bigarren gelditu zen 371.5 punturekin, Iker Zubeldiaren atzetik. Unai Muñoak bosgarren egin zuen, 359 punturekin. Saio bakoitzeko aurrenekoa zuzenean pasatzen da (5 denera) eta beste zortzi puntuazior pasako dira.

Datorren larunbatean saioa Hernanin izango da eta, besteak beste, Joxe Luis Urdangarin eta Agin Rezolak kantatuko dute Sandiusterrin, 17:00etan. □

## Argazki erakusketa

DOBERAK erakusketa jarrita dauka Biterin Hernaniko argazki zaharrek. Argazkiek XXgarren mendeko historiaren momentu grafikok biltzen ditu. Eguneroko dago zabalik, 18:00etatik 20:00etara. □

## Pagola: "Lizarra-Garazi bezalako formula batek behar du konponbidea"

JOXAN Pagolak Kronikari adierazi dio bere ustez Lizarra-Garaziren tankerako formula batetik etorriko litza keela gatazkaren konponbidea. Hala ere, aitortzen du 19 urtean kartzelan egon izanak ez dio uzten gauza asko jendeak nola bizi eta sentitzen dituen ikusten. Era berean, iruditzen zaio kontrakoa ere gertatzen dela. Jendeak ez duela ikusten eta sentitzen kartzela barruko bizitza benetan zer den, eta presoak nola dau-

den. Berak azken bi urteak isolamenduan pasa ditu, bakar-bakarrik, eta azken urte eta erdi egun osoan ia zeldatik atera ere egin gabe, bisitara edo medikuarengana joateko ez bada. Uste du isolamendua pertsona txikitze bidea dela, sentimenduak eta bizipenak muturreraino eraman arazten dituelako. Eta hor, bere ustez, pertsonak behar duen oreka galtzeko arriskua dago etengabe. Horrela bizitzea zer den azaltzea da

orain egin nahi duen lana.

Pagola soldaduskan zegoela atxilotu zuten. 19 urteotan Kazetaritza karrera, Publizitatea eta marketing ikasketak egin ditu eta filologian ere hasi zen. Preso lagunak agurtzea oso gogorra egin zitzaion, eta hiru bertso botata agurtu zituen, habanera doinuan. Uste du bizi berrira kartzelara baino errexago ohituko dela. Kaleak ez du hainbeste harritu, baina, mendia ia sasiak hartuta egoteak bai. □



Joxan Pagola 'Beltza'

**lbai-mendi**  
Marka onenak dauzkagu:  
TRANGO  
TERNUA  
COLUMBIA  
THE NORTH FACE  
SALOMON  
BOREAL  
TUCKLAND  
KAMET  
CHIRUCA  
Nafar kalea 24 - 943 333724 - Hernani | Nagusia 18 - 943 590372 - Andoain

**OINDI**  
**taberna**  
**NAGUSIA, 25**  
**HERNANI**  
**943 557 509**

**GARAYAR AUTOBUSAK**  
Zerbitzu diskrezionalak (ESKOLARRAK)  
Autobus zerbitzua Linea erregularrak  
Hernani-Aiete-Donostia-Aiete-Hernani Andoain-Urnieta-Hernani-Donostia-Hernani-Urnieta-Andoain  
Jauregi bailara 17 - Tel.: 943 556 658 / 943 556 662  
Faxa: 943 331 208 e-maila: mgarayar@facilnet.es  
20120 Hernani (Gipuzkoa)



Musika Bandak eta entzuleek minutuko isilunearekin gogoratu zuten Luis Berrondo zena.

## Minutuko isilunea Luis Berrondoren oroimenez eta betiko kanta zaharrak Sandiusterrin

MUSIKA Bandak kontzertua eman zuen atzo Sandiusterrin bertako zaharrei eskainitako emanaldian. Aurretik iragarri bezala, kontzertu hasieran minutuko isilunea egin zen Luis

Berrondo Bandako kide hil berriaren oroimenez. Bandak ez ezik, publiko guztiak ere zutik jarrita eskaini zion omenaldi xumea Luis Berrondo zenari.

Manuel Sagarna zuzendari zuela, Bandak denon buruan dabilzan betiko kantekin osatu zuen kontzertua. Sandiusterriko aretoa ia erabat bete egin zen. □

## ERRUGBIA



Benben entrenatzailea jokalariei esplikazioak ematen atzo deskantsuan. Jende asko bildu zen.

## Hernanik hirutik hiru irabazi

■ Hernanik 48-0 irabazi zion Iruñako La Unica taldeari ■ Cia lesionatu egin da.

**Hernani Zumaiaiko** 48  
0

HERNANIK egurtu polita eman zion atzo Landaren Iruñako La Unica taldeari. Zelaia erabat lokaztuta zegoen eta hernaniarrei kosta egin zitzairen partiduari neurria hartzen.

Denbora pasa ahala, ordea, entsaiotan aurretik jarri eta partidua beren eskutan eduki zuten. Zorrotzena Ibai Mitxelena ibili zen eta 4 entsaio egin zituen. Thierry Lamaisonek 2, eta Iñaki Apeztetxek eta Aitor Larrañagak bana. Hiru partidua irabazita Hernanik goi-

ko muturrean jarraitzen du. Paritiduak alderdi txar bat ere izan zuen. Patxi Ciak txorkatilean min hartu eta ospitalera eraman zuten. Medikuen esanetan, Ciak txorkatila atera egin zuen, baina, ligamenduetan ez du inongo lesiorik izan. □

KIROLA		ASTEBURUKO EMAITZAK	
FUTBOLA	Taldeak	Emaizta	PELOTA
Gorengoa	Hernani-Zestoa	1-2	Gipuzkoako Txapelketa
Gaz. Eusk	Union Txiki-Hernani	3-3	
Gaz. 1go maila	Hernani-Beasain	1-4	
Kad. Ohorezkoa.	Aldapetarrak-Hernani	1-1	
Kad. 1go maila	Ondarroa-Hernani	5-0	
Haur Ohorezkoa.	Hernani-Arebabaleta	0-1	
Haur 1go maila	Hernani-Martutene	1-5	
BOLEIBOLA			
Neskak	Hernani-Deustu	3-0	
Mutilak	Rekalde-Hernani	3-2	
ERRUGBIA			
Liga Nazio.	Hernani-Irun	48-0	WATERPOLOA
Euskal Liga	Hernani-La Unica	32-12	Gipuz. Liga
Kadeteak	Hernani-La Unica	27-0	Euskal Liga
			SASKIBALOIA
			Liga
			Hernani-Beasain
			47-46

## HITZ BITAN



Xabi Blantxen gola, kornerra atera eta buruz jota.

## ✓ FUTBOLA

**Hernanik azken minutuan galdu zuen.** Hernanik 1-2 galdu zuen atzo etxean, Zestoaren kontra. Loranen mutilei hasieratik okertu zitzairen partidua zestoarrak 0-1 jarri baitziren aurretik. Hernaniarrek, ordea, ez zuten etsi eta borrokan segi zuten. Aurreneko denbora bukatzeko 10 minutu falta zirela, Xabi Blantxek berdindu zuen partidua, kornerra atera, eta buruz gol ederra sartuta. Bigarren denboran ere bi taldeek izan zituzten aukerak, baina, garbiena Blantxek berak eduki zuen. Erasoaldi batean, bakar-bakarrik gelditu zen Zestoako porteroaren aurrean, baina, baloiak porteroa jo zuen. Bukaera aldera urduritasun momentuak ere izan ziren. Azken minutuan, Hernaniko area ondotik falta bat bota eta bigarren gola sartu zuen Zestoak, Felix Esnaola hernaniarrek entrenatzen duen ekipoak. Zortzigarren jardunaldia jokatu da eta Hernanik ez du Zubipen puntu bat bakarrik atera.

## ✓ BELEIBOLA

**Biek galdu.** Mutilen ekipoak 3-2 galdu zuen larunbatean Rekalderen kontra, Bilbon, eta neskek atzo ezin izan zuten Deustu mendean hartu etxean. Hernanik 3-0 galdu zuen bizkaitarren kontra, baina, jokoak oso estu izan ziren: 25-17, 25-19 eta 25-22.

## ✓ SASKIBALOIA

**Hernanik 37-36 irabazi.** Hernaniko saskibaloitzaletan berriz ere irabazi egin du, gauzak larri baziren ere. Oso partidua gogorra eta borrokatua jokatu zuten larunbatean hernaniarrek eta beasaindarrek, eta azkenean etxekoek puntu bategatik irabazi zuten.

## ✓ WATERPOLOA

**Hernani Ak irabazi eta Bk galdu.** Hasiera gazi-gozoa eman diote Hernaniko taldeek denboraldi berriari. Hernanik Ak 11-12 irabazi zion Iruñari, Euskadiko Ligan. Gipuzkoako Ligan, berriz, Hernani Bk 6-4 galdu zuen Tximistarraren kontra Anoetan.

## ✓ IPIUAK LIBURUTEGIAN

**Lur Korta asteazkenean.** Hilero bezala, asteazkenean ipuiak izango dira Biterin, Liburutegian. Kontalaria Lur Korta izango da eta 17:30etan 3-4 urteko umeentzako saioa egingo du eta 18:00etan 5-7 urte dituztenentzat. Ipui emanaldi horiek Udalak antolatzen ditu eta Jaurilaritzaren laguntza dute. □

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

►Taxiak:  
943 550093  
►Udaltzaingoa:  
943 333288  
►DYA:  
943 464622  
►Anbulatorioa:  
943 006666  
►Jokalarri anonimoak:  
943 331103

### ☎ FARMAZIAK

#### ASTELEHENA

►Egunez: Gomez Justel  
Kale Nagusia 14  
☎ 943 55489

►Gauetz: Oa  
Usurbil. Poligono 1, 1  
☎ 943 376076

#### ASTEARTEA

►Egunez: Bulnes  
Florida auzoa  
☎ 943 557738

►Gauetz: Tanco  
Urnieta. San Juan 36  
☎ 943 550942

## IRAGARKI MERKEAK

Alkiltatzeko pisu bila nabil : 660 560166

Emakume bat behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko, goiz eta arratsalde: 07:30etatik 11:00etara eta 16:30etatik 19:00etara : 658 73 88 32 (iluntzean)